

[www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

# 2019

## TXOSTENA

**UNESCO ETXEA**  
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

## NIEVES FERNANDEZ LEHENDAKARIA ARANTZAZU ACHA ZUZENDARIA



Bilera Lehendakariarekin. Gasteiz, 2019ko urriak 11.

(esker-eskubi: Jonan Fernandez, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusia; Arantza Acha, UNESCO Etxeko Zuzendaria; Iñigo Urkullu, Lehendakaria; Nieves Fernández, UNESCO Etxeko Lehendakaria; Marian Eitorza, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia eta Jose Maria Villate, UNESCO Etxeko Lehendakariordea)

Edizioa: 2020ko ekainak

**Bilbao:** Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. Tfna: 94 427 64 32  
**Gasteiz:** Zapatarri kalea 8. Tfna: 945 26 41 96

[info@unescoetxea.org](mailto:info@unescoetxea.org) – [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

  
**UNESCO ETXEA**  
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO  
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA




## NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 132 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

## UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA



Gainera:  
- 9 Boluntario egotzian.  
- Eusko Jauritaritzarekin 10 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan  
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun UNESCOren Pariseko egotzian.



Bazkideen urteko batzarra 2019.

(esker-eskubi: Libe Fernández Torrontegui, Txerra Ordeñana, Guillermo Dorronsoro, Nieves Fernández eta Arantza Acha)

## EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

### EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBERekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

### IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituena– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

### BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haiek hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektzio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

## SARE ETA ALIANTZAK

### UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Komunikazio Globala Saileko kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

### Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

### ...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Together 2030.
- Local Governments for Sustainability (ICLEI).
- European Sustainable Cities Platform.
- Futuro en común.

- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea (REDS-SDSN).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Emakume progresisten federazioa.

### ...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS).
- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba. UNESCO MaB Programa
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Emakumeak Aniztasunean elkarteak.
- Eusko Ikaskuntza.
- Bilbao Metropoli 30.
- Ahalbidetu elkarteak.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria. Hiri Sortzaileen Sarea.
- Novia Salcedo Fundazioa.
- Mujeres con voz elkarteak

## BEKAK

### NBE Bekak

1997tik, Nazio Batuen beken programa kudeatzen dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez finantzatzen dena. 10 pertsonak beste urtebeterako berritu dute beka UNESCOk Afrikan eta Latinoamerikan dituen bulegoetan lan egiteko. Horrela, 189 gaztek hartu dute parte programa horretan 1997an abian jarri zirenetik hona.

### BBK-UNESCO Bekak

BBK Fundazioak eta UNESCO Etxeak bi nazioartekotze-beka eskaintzen dituzte urtero, lan-esperientzia bat emateko UNESCOren egoitza nagusian Parisen. Beken 6. edizioari esker, bi pertsona aritu dira lanean sei hilabetez Parisen, UNESCOren egoitza nagusian, bata Finantza Kudeaketarako bulegoan eta bestea Barne Ikuskeraren zerbitzuan. (Auditoretza).

### Prestakuntza-bekak kultura ondarean

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Sailaren laguntzarekin bi gaztek 4 hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte gure Bilboko egoitzan: Ondare Up tresna didaktikoa ezarri eta kultura ondarea nabarmentzeko ekintzak eginen lagundu dute.

### Prestakuntza-bekak Urdaibain

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzarekin 'Urdaibai beken' 3. edizioari esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek lau hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte. Gainera, UNESCO Etxeak lagunduta, Biosfera Erreserba ordezkatzen dute Madrilgo Klima-COP25 goi bileran.

### Giza eskubideetan prestatzeko bekak

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin 13 beka banatu ditugu Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluari eta haren arau-tresnei buruzko prestakuntza-tailerrean parte hartzeko. Genevan egin da, saioen 42. aldian. 2019an, LGTB+ aktibistek eta ikastetxeren ordezkariek zuzendu zaizkie. Hezkuntza-praktika berritzaileak erabiltzeagatik hautatu zituzten ordezkariek horiek, gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko UNESCO Etxearen proiektu batekin lotuta.



Urdaibain prestakuntza-beken 3. promozioa. Ainaro Seco eta Mikel Mugica COP25-Klimaren Goi Bileran. Madril, 2019ko abenduak.



## PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

### 2030 AGENDA ETA NAZIO BATUAK



'Alda dezagun planetaren norabidea... mugi zaitez GIH-en alde' kanpaina. Guggenheim Bilbao Museoa. 2019ko abenduak 13.

2030 Agenda indarrean egon den laugarren urtean, lanean jarraitu dugu euskal gizarteko hainbat eragilek pertsona guztientzako etorkizun jasangarriago bat sortzeko duten konpromisoa eta parte-hartzea indartzeko.

Hedapen-jardueri dagokionez, ekintza garrantzitsuekin jarraitu dugu, hala nola gazteentzako BBK-UNESCO Etxea **lehiaketa**, 'Mundua hobetzeko idatzi edo marraztu', 2030 Agendari buruzko buletina, 'Gure mundua eraldatzeko 17 helburu' erakusketa ibiltaria, kaleko ekintzak EAEko udalerrietan eta 6. GIHari buruzko kanpaina Bilboko Aste Nagusian.

Prestakuntzari dagokionez, **ikastaro espezializatuak** eman ditugu; esaterako, 'Zer gertatzen da Agenda 2030arekin? Inplikaturako eragileen eta egindako aurrerapenen berrikuspena'. Halaber, tailerrak eman ditugu zazpi ikastetxetan, eta 420 gaztek baino gehiagok eta haien irakasleek hartu dute parte. 2030 Agenda barneratzeko ikastaroak eman dizkiegu EHUko ikasleei, gradu-amaierako lanetarako. **'Garapen Iraunkorreko Helburuak ikasgelan – Zu ere parte zara!'** gida didaktikoa argitaratu dugu, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. 'Bilboko Udalaren ekintzaren eta 2030 Agendaren diagnostikoa' egin dugu, eta udal-arloetako zuzendaritzei aurkeztu diegu.

'Giza eskubideak eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda' txostena argitaratu dugu, bi agendak modu bateratuan gauzatzen laguntzeko eta elkar indartzeko, giza garapen jasangarriko funtsezko elementuak baitira. BBK Behatokiarekin batera, Bizkaiko 2030 Agendaren egoerari buruzko **17 infografia** egin ditugu, GIH bakoitzeko bat.

'Giza Eskubideak eta 2030 Agenda' jardunaldia antolatu dugu hainbat arlotako adituen parte-hartzearekin. Han, giza eskubideen eta 2030 Agendaren artean zer lotura dauden hausnartu genuen, bai eta giza garapen jasangarria aurrera egiteko elkar nola indartzen duten ere. Komunikazioaren esparruko pertsonentzat, **'Berdea eta morea komunikazioan. Komunikazioa garapen jasangarriko eta gizartea eraldatzeko'** jardunaldia antolatu dugu. 2030 Agenda eta GIHak sektore pribatuaren ezagutzera emateko, hainbat jardunaldi antolatu ditugu **beste erakunde batzuekin batera**: UOCekin, '2030 Agenda enpresaren estrategian txertatzea'; BBK Fundazioarekin, '2030 Agenda Bizkaiko enpresetan'; eta Arizmendiarieta Fundazioarekin, Europako Parlamenturako eta Batzar Nagusietarako hautagaien mahai-ingurua, proposamen sozioekonomikoei eta enpresaren eredu inklusiboaren garapenari eta lankidetzak ekonomiarri buruzkoa.

Hirugarren urtez, **'Alda dezagun planetaren norabidea... Mugi zaitez GIH-en alde'** kanpaina abiarazi dugu, Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle eta irakasleentzat. 2030 Agendari buruzko informazio-tailerak jaso ondoren, zazpi ikastetxetatik etorritako 500 gazteak Guggenheim Bilbao Museon bildu ziren, 2030 Agendari ematen dioten babesa flashmob baten bidez adierazteko. Isaak Aranberri dantziariak koreografiatu zuen ekimena, eta abestia *Inor ez atzean* izan zen, Maddalen Arzallusek (letra) eta Eñaut Gaztainagak eta Itzal Urangak (musika) kanpainarako sortua.

Informazio gehiago: [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

### GARAPENERAKO KULTURA



Lehen GizARTE Jaialdia, Fair Saturday egunaren testuingurua. Bilbo. 2019ko azaroak 30.

Gizarte-erlaldaketa eta garapen jasangarria gauzatzeko badira, behar-beharrezkoa da tokiko testuinguruaren eta testuinguru globalen kultura-erlaldaketa kontuan hartzea. Ikuspegi horretatik, UNESCO Etxeak lan-ildo bizia izaten jarraitu du 2019an, eta agerian utzi du zerbateko ahalmenaduten kulturak eta askotariko kultura-adierazpenek gizarte-erlaldaketarako hezkuntzaren erronka nagusiei erantzuteko.

Horretarako, aliantza bultzatu dugu artistekin, hezitzaileekin eta kultura-kudeatzaileekin, **GizARTE Sarearen bidez (Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea)**. Horretatik, ekitaldi hauetan parte hartzea sustatu dugu: Montevideoko Kulturako eta Arteetako Langile Emakumezkoen Nazioarteko II. Topaketan; Europako InSEaren Arte-hezkuntza: gatazkak eta konexioak' mintegian, Maltan; eta bi hilabeteko lankidetzak La Nana-n, Arteen Fabriketan, Mexiko Hirian. 'Arteak, hezkuntza eta kultur sorkuntza guneak' jardunaldiaren beste edizio bat antolatu dugu; jardunaldi horietan, arte- eta kultura-heziketako eragileek esperientziak, metodologiak eta tresnak trukatzeko aukera ematen dugu, eta azken edizioan, arte- eta kultura-bitartekaritza funtzio soziala eta eraldatzailea izan zen ardatza. Gainera, GizARTE Sarearen lehen jaialdia egin dugu Fair Saturday delakoaren esparruan; bertan, Sareko hainbat artistak eta erakunde agerian utzi zuten emakumeek funtsezko zeregina izan dutela eta oraindik ere badutela eragile aktibo gisa kulturetan eta arteetan.

2019an, **Sarea handitu egin da, aliantza berriak sortuta**. Gipuzkoan hedatu gara batez ere, oraindik ez baikenuen hainbesteko eraginik lurralde horretan, eta aurreko hainbat ekintza egin ditugu; adibidez, arte-prozesuak eta baterako sorkuntzako prozesuak sortu ditugu Donostiako EHUko Hezkuntza Fakultatean, eta Calcuta Ondoan GGKEaren Heziketza Biltsararen Aholku Batzordean hartu dugu parte (bi-biak GizARTE Sareko kideak dira).

**Ondare UP ekimenaren** barruan, ondarea eta kultura-aniztasuna Bizkaiko gazteei hurbiltzea helburu duen ekimenean, 2019ko Ondarearen Europako Jardunaldietan hartu dugu parte, 'Plazan jolasean' izeneko jarduerarekin. Hartan, Markina-Xemeingo Berakruz Ikastolako ikasleek beren kultura-ondare immaterialaren berri eman dute, Euskal Herriko jolas tradizionalen bidez.

Bestalde, kultura-dinamikak landu ditugu hainbat gazte-talderekin. Gainera, 'Kultura Ondarea ezagutzeko I. Gazte Topaketa' antolatu dugu Leioan. Topaketa horretan, udalerriko gazteek beren ondare hurbilenaren balioa erakutsi zuten, minutu batetik beherako bideoak eginez.

Jarduera horiek guztiak 20 bideotan baino gehiagotan jaso ditugu. Youtubeko gure kanalean daude.

Azkenik, **prestakuntzaren eta ezagutza berria** sortzearen aldeko apustua eginez, 2019an ere lau beka eman ditugu Genevan Giza Eskubideen Kontseiluaren tresnei buruzko tailer batean parte hartzeko; 2019an, sexu- eta genero-aniztasunari buruzkoa izan zen tailerra, eta LGBT+ ekintzaileei zuzendua. Horrez gain, **ONDARE UP** ekimenaren barruan, gazteentzako beka-deialdi bat ere egin dugu, ondarea eta kultura-aniztasuna landu dezaten eta balioa eman diezaioten.

## HEZKUNTZA ETA BAKE KULTURA



'BILAKA' dokumentalaren estreinaldia. Nelida Zaitegi, Euskadiko Eskola Kontseiluko Lehendakaria eta Monika Vazquez, UNESCO Etxeko Hezkuntza programaren arduraduna Bilbo. 2019ko azaroak 20.

2019an bakearen kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu dugu, prestakuntza-jardueren bidez, UNESCOri atxikitako eskolen mundu-sarean parte hartuz.

EAEko 9 ikastetxek hartzen dute parte UNESCOren sarean. Horren barruan egindako jarduera guztien artean bi aipatuko ditugu: batetik, UNESUM izenekoak Nazio Batuetako herrialdeak nola biltzen diren eta herrialde horiek gizateriaren intereseko gaiak nola negoziatzen dituzten erakusten du, jardun hori erreproduzitzen; eta, bestetik, UNESCOri atxikitako eskolen Estatuko XXXII. topagunea, Madrilén egin dena.

UNESCOren «Migrazioa, lekualdatzea eta hezkuntza: zubiak eraikitzen, hormak eraiki beharrean» txostena kaleratu dugu. Txostenak hezkuntza-esparruari lotutako Garapen Jasangarriko Helburuan (GIH 4) egindako aurrerapenak ditu aipagai eta, horrekin batera, emigrazio-mota ezberdinen tamainari eta ezaugarri buruzko eta herrialdeetako hezkuntza-arloko migrazio-politiken eta -joeren arteko ezberdintasunei buruzko informazioa eskaintzen du.


Prestakuntzari dagokionez, 'Garapenerako lankidetzaren proiektuen formulazioan giza eskubideen ikuspegia barne hartzea' ikastaroa egin da, GGKE-etako ordezkariak unibertsitateetako ikasleak bilduta: 20 lagun guztira.

'Human Rights Internship Programme' izeneko prestakuntza-ikastaroaren beste edizio bat ere antolatu da Genevan. Giza Eskubideen Kontseiluaren 42. saio-aldia dela eta, irailaren 24tik 27ra bitartean, Euskadiko 9 ikastetxeren ordezkariak giza eskubideak sustatzeko eta babesteko nazioarteko mekanismoak buruzko prestakuntza jaso dute. Hezkuntza-praktika berritzaileak erabiltzeagatik hautatu zituzten ordezkari horiek, gizarte-erlaldaketarako hezkuntzari buruzko UNESCO Etxearen proiektu batekin lotuta.

'BILAKA. Hezkuntza eraldatu gizartea eraldatzeko' dokumentala aurkeztu dugu. EAEko 9 ikastetxeren esperentziak aurkezten ditu haien hezkuntza proiektu eta eredu pedagogikoei esker Gizarte eraldaketa bultzatzen dutenak. Honetaz gain, Txileko Universidad Abierta Recoleta-ren esperentzia aurkeztu zen, praktika kulturalak, jakituria, eta ezagutzak zabaltzeko, elkartrukeatzeko eta sortzeko sortu den unibertsitatea; gizarte araldaketa bultzatzeko herri-hezkuntza eredu bat.

Informazio gehiago: [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

## IRAUNKORTASUNA



EUROMaB 2019. Nekane Viota, UNESCO Etxeko iraunkortasuna programaren arduradunaren hitzaldia. Dublin. 2019ko apirilak 2.

2019an, UNESCOren MaB Programan (Biosfera Erreserbak) aktiboki parte hartzen jarraitu dugu, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba nazioartean ezagutzera ematen laguntzen. Ildo horretan, Dublinen egin den EuroMaB 2019an hartu dugu parte. Bertan, biosferaren 30 erreserba beren arteko komunikazioa eta sarean sorrera hobetu nahi izan dituzte, bai eta beste eragile batzuekin elkartu ere, tokiko ekintzen bidez arazo globalei heltzeko. Urdaibairen kasuan, GIHen alde eta gazteen parte-hartzearen alde egin duen lana azaldu genuen. Horrekin batera, hizlari gisa parte hartu dugu 'Zientzia eta kudeaketaren arteko zubiak eraiki Biosfera Erreserbetan. Iraunkortasun Agenda 2030 osotuz Gizarte eta lurraldeen iraunkortasunerantz' nazioarteko lehen kongresuan.

Hirugarren urtez, Urdaibai bekak eman genituen. Haiei esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek zazpi hilabeteko prestakuntza-praktikak egin zituzten. UNESCO Etxeak lagunduta, gazte horiek Madrilén egindako COP25 klimaren goi-bileran parte hartu zuten, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ordezkariak izan ziren 'Gazteak eta klima-aldaketaren aurkako borroka' mahai-inguruan. Horretan, Espainiako hainbat erreserbaren ordezkari izan ziren gazteek klima-aldaketaren aurkako borrokako kasu arrakastatsuek azaldu zituzten.

Euskadin jasangarritasunaren alde egiten den lana nazioartean zabaltzeko dugun egitekoari eutsiz, sareetan dugun presentzia baliatu dugu Euskal Adierazpena – Europako hiri eta herrietarako bide-ori berria eta Udalsarea 21en lana ezagutarazteko. Aran Acha gure zuzendaria epaimahalkide izan zen ICLEI-k (Jasangarritasunaren aldeko tokiko gobernuen Europako sarea) antolatutako Ekintza Eraldatzailearen Sarian.

'Klima-aldaketa: giza eskubideentzako mehatxurik handiena XXI. mendean' jardunaldia antolatu dugu, Aste klima-Euskadiko Klima Aldaketaren Astearen esparruan. Jardunaldi horretan, klima-aldaketaren eta giza eskubideen arteko loturak landu ziren, eta zenbait eskubide zehaztetan sakondu zen, hala nola ura eta saneamendua izateko giza eskubideen edo osasunerako eskubideen. 2030 Agendaren aginduari jarraituz ('inor atzean utzi gabe'), berriaz aztertu dugu klima-aldaketak zer-nolako eraginak dituen kolektibo ahulenetzat, hala nola ingurumen-defendatzaileentzat, klima-errefuxiatuentzat, emakume eta nesketentzat, eta herri indigenentzat.

Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa proiektua euskal gizarteari hurbiltzen jarraitu dugu. 2019an, hainbat ekimen egin ditugu. Hona hemen adibide batzuk: 'Ekosistemen zerbitzuak eta giza ongizatea Euskadin' online ikastaroaren 4. edizioa; 'Ekosistemen zerbitzuak. Ba al dakigu gure inguruak zer eskaintzen digun?' material didaktikoa; Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasleentzat; 'Natura, ongizatearen oinarria' ikus-entzunezkoa; eta 5 minutuko animazio bat, natura-aniztasuna ekosistemen funtzionamenduari oinarria dela eta, beraz, haren kontserbazioa eta kudeaketa jasangarria pertsonen ongizaterako ezinbestekoak direla azaltzen duena.

Ingurumen Iraunkortasuna Probreziaren Aurkako Borrokan Sareko kide gisa, 'Ingurumen iraunkorra, pobrezia kontra borrokatzeko' mahai-ingurua antolatzen lagundu dugu. Mahai-inguruaren helburua honako gai honi buruz gehiago jakitea, hausnartzea eta eztabaidatzea izan zen: 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen ildoari jarraituz, hainbat eremutatik eta erakundetatik ekosistemen kudeaketa jasangarria bultzatu beharra dagoela, munduan pobrezia eta desorekak arintzeko.



## 2019ko ARGITALPENAK [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org) eta [www.youtube.com/unescoetxeapv](http://www.youtube.com/unescoetxeapv) -en eskuragarriak

### Berezko argitalpenak:

- Derechos Humanos y Agenda 2030 para el desarrollo sostenible.
- Ecos de la serpiente #6.
- Gazteak mundu hobe baten alde.
- Unitate didaktikoa. Garapen Iraunkorrerako Helburuak ikasgelan – Zu ere parte zara!.

**Bideoak:** ▪ Mundua hobetzeko idatzi edo marraztu| Giza Eskubideak marrazten| Eman minutu 1 Interkulturen alde VEDI LGTB+ 1. topaketa | 'Arte en Paz' tailerrak | 'Arteak, hezkuntza eta kultur sorkuntza guneak' Jardunaldia Alda dezagun planetaren norabidea, Mugi zaitetz GIH-en alde | GizARTE 1. jaialdia | Plazan jolasean | Kultura Ondarea ezagutzeko I. Gazte Topaketa



## EKITALDI NABARMENAK

### 1 'INTERKULTURA TE' IKUSKIZUN ESZENIKOA

'Interkultura TE' Ikuskizun eszeniko ekitaldia azaroaren 30ean estreinatu zen, Andres Isasi musika eskolan, Getxon, Fair Saturday egunaren testuinguruan.

Interkultura proiektu eszenikoa, kultur arloan esperientzia handia duten 6 erakundek antolatuta dute:

- UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa
- Euri Artean
- Asociación AMUGE
- Novisi Elkartea
- Zumaiena
- Fair Saturday.

Ikuskizun eszeniko honen helburua (olerkiak, musika, abestiak, dantzak, lekukotasunak eta ikus-entzunezkoak) ikuspegi interkultural batetik gure elkar eragitea, bizikidetasuna eta gizartearen dugun parte-hartzei buruz ausartzea zen. Aniztasunean garatzen diren kulturak, identita ezberdinak onartuz eta partekatuz.

### 2 EHUS- EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN 5. TOPAKETA

Martxoaren 29an Euskal Herriko UNESCO sarearen 5. topaketa izan zen Deustuko Unibertsitatearen Bilboko campusean, Giza Baliabideen Prestakuntzarako UNESCO Katedraren sorreraren 25. urteurreneko ospakizunen barruan.

Biltzar horretan aurkeztu eta onartu dira 2019rako plana eta helburuak. Azpimarragarria da 'EHUS Magazine' aldizkari berria, paperean eta formatu digitalean plazaratuko den zabalkundeko argitalpena, Sareari agerikotasuna emango diona, baita Sareko erakunde bakoitzaren helburu eta jardueri ere.

Aldizkaria 'Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak' jardunaldian aurkeztu zen Munduko hizkuntza ondarearen UNESCO katedrak eta Euskal Herriko UNESCO sareak antolatuta.

### 3 'EMAN MINUTU 1' LEHIAKETA

2019an, 9. edizioan, lehiaketak 'Eman minutu 1 Duintasunaren alde' izena hartu zuen.

Giza duintasunerako eskubide unibertsalari buruzko kontzientzia zabaldu nahi zen, gizakioi berezkoa zaigun balioa baita. Balio horrek berekin dakar aitortzea pertsona guztiok garena berdina eskubide eta betebeharreran, eta, beraz, guztiok izan behar dugula osoki aintzat hartuak eta errespetatuak gizartearen, inolako bereizketarik egin gabe arraza, genero, jatorri, adin, gizarte-klase edo sexu-orientazioagatik.

Edizio honetan minuto bateko 60 lanek parte hartu dute. Frantzia, Brasil eta Italiako bideoak jaso dira; baita Euskadi, Aragoi, Asturias eta Valentziakoak ere.

Informazio gehiago: <https://dame1minutode.org>

### 4 'PIEZAS' DOKUMENTALAREN ESTRAINALDIA

Azaroaren 24an Guggenheim Bilbao museoa, Fair Saturday egunaren testuinguruan, 'Piezas' dokumentalaren estrainaldia izan zen Mikel Unzueta eta Koldo Perezek, 'Eman minutu 1 hezkuntzaren alde' lehiaketako VIII. Edizioaren irabazleek sortutakoa.

Dokumentala heziketak eraldaketa sozialean duen garrantziaz hausnartzen du.

Pertsonai erreal ageri dira, heziketarekin erlazio ezberdina duten hainbat agente esperientzia propioak kontatuz, leku ezberdinetako ahurrak, ikertzaileak, irakasleak, familiak.

Ramón Bustamante, Herri Irratiaren kazetaria, izan zen ekitaldiaren aurkezlea.



1



2



3



4

## DATU EKONOMIKOAK

## GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean  
www.unescoetxea.org web gunean daude.

## 2019ko Auditoriaren txostena

LKS

LKS AUDITORES, S.L.P.  
C/Alfonso de Etxepare, 100, 1º planta  
48940 LEZAMA (Bizkaia)  
T: 945 03 34 88  
F: 945 03 34 89  
www.lksauditores.com

## INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETEXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO:

## Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de UNESCO ETEXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO (la Entidad), que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2019, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2019, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

UNESCO ETEXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe de auditoría de cuentas anuales abreviadas emitido por un auditor independiente  
a 31 de diciembre de 2019

• Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Consejo de Gobierno.

• Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Consejo de Gobierno, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.

• Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con el Consejo de Gobierno de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Consejo de Gobierno de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

LKS AUDITORES, S.L.P.  
Inscrita en el R.O.A.C. N° S1054

AUDITORES

M<sup>re</sup> Mercedes Pascual Maestre  
Inscrita en el R.O.A.C. N° 18.942  
28 de mayo de 2020

LKS AUDITORES, S.L.P.  
2020 NOLA ERRODORTZA  
M<sup>re</sup> MERCEDES PASCUAL MAESTRE  
NOLA ERRODORTZA  
2020 NOLA ERRODORTZA

## Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

## SARRERAK GUZTIRA 2019


867.650,67€

Ekarpen pribatuak

168.211,02 € %19,39

Ekarpen publikoak

699.439,65 € %80,61



- Bazkideak
- Erakunde pribatuak
- Beste batzuk (norbanakoen dohaintzak, publizitate balioespena...)
- Eusko Jauriaritza (\*)
- Aldundiak (BFA-GFA-AFA)
- Udalak (Bilbo, Gebxo, Donostia, Gasteiz)
- Beste batzuk (lokalen lagapenaren amortizazioa)


(\*) Eusko Jauriaritza:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia %43,28; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila %8,08; Hezkuntza Saila %4,15; Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza %2,15

## Programetako gastua

## GASTUAK GUZTIRA 2019

859.431,41€



- 2030 Agenda eta Nazio Batuak
- Iraunkortasuna programa
- Kultura programa
- Hezkuntza eta Bake Kultura programa
- Kudeaketa orokorra
- Lokalen amortizazioa
- UOC zerbitzuak eta beste batzuk

## Egoera-balantzea 2019

## AKTIBOA

Aktibo ez-zirkulatzailea 100.881,91

Aktibo zirkulatzailea 915.073,47

Aktiboa guztira 1.015.955,38

## ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Ondare garbia 967.781,51

Fondo propioak 60.808,80

Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak 906.972,71

Pasibo zirkulatzailea 48.173,87

Ondare garbia eta pasiboa guztira 1.015.955,38

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2019an laguntza eman baitigute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

## Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.

## Egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Fundación La Caixa.

## Baliabideak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Diario de Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.
- EITB.